

# + Anaitasuna

VIII URTEA - N.º 93

Depósito Legal SS. 1092-1959

Suplemento de la Hoja  
ANAITASUNA de Guipúzcoa

IRAILLA (9) 1962

## EGI - ZALEAK

Pekaturtxu bat daukagu mundu onetako gizonok: gure buruari larregi eta besteena-ri nekez sinistea. Ez gara besteen barruan sartzen, gurea baiño interes gitxiagokoa dala-ko edo, eta ezin izaten gara konturatu al- bokoak be euki leikela bere arrazoi apurra.

Jaungoikoak nun-nai zabaldu dau egia; danori emon deusku, bakotxari zati bat, da- non artean Egi osoa egin daigun. Ze ederra mundua, danok alkar arturik, bakotxak be- re egiarekin, danok galburu bat egiñik, "Ai- ta gurea, zeruetan zagozana..." esaten do- gunean!


Izan gaitez an egi-gose, egi-zaleko. Mai- tasun benetakoa badeutsagu egia, etorriko da gugana. Artu daigun egia, naiz gure barrutik, naiz "beste aldekoenetatik" etorri. Izan gaitez an zintzoak, leialak daneri en- tzuten.

Danok daukagu gure egi apurra, danak dauke, baita areriotzat daukaguzanak be, baita gizon maltzurrenak be. Ez gaitezala gelditu egi ori jaso barik, ez dakit zelako bildurrak lotuta edo. Ez dago iñor, emen beian, zer ikasirik ez daukanik, egi osoa al- dian daroanik.

Egiak ez gaitu galduko, naizta iltzera eroaten bagaitu be. Egia gauza santua da, Jaungoikoagandik bakarrik datorrena; Jaun- goikoak emon deuskun doerik aundiena, ederrena.

"... egiak askatu egingo zaitue", esan eban bein gu askatu gaitunak, Kristok.

*Arriola*



# PERSONALIDADEA

1.—*Modak ez dabe personalidaderik emoten.*

Zer dala-ta jasten dabez emakume askok gona estu ta ganorabakoak? Zer dala-ta gastaten dabe ainbeste diru "koloreak" erosten? Zer dala-ta bastertuten dabez birritan edo irutan ibillitako jantziak?

Itaun oneeri erantzuna emotea ez dot uste aín gatxa danik. Ona amen nire iritxia ta nire erantzuna: "atzerrietatik —askotan "aurrerrietatik"— datozan modak ez galdütearren". Baiña, erantzun au ez da osoa; itaun orren azkeneko erantzuna auxe da: "Personalidade famatu baten egarria ase naia".

Modeak ez dau personalidadearen egarria asetuten. Moda askok, personalidadea emon bearrean, norberak daukan personalidade apurra alperrik galduten dau. Zer ikustén dogu, esate bäterako; moda barrien atzetik, dabilzan persona tartean? Danak darabile: autu bat; edo Fabiola-k semea daukala, edo Sofia Carlos-gaz ezkondu dala... Danak jantzi bat; danak ule luzea; danak... dana, au da, danak "modako mundutxua" darabilenak. Ta, gero, Personalidadea gora ta Personalidadea bera, kontxo!...

2.—*Norberak, norberaren Personalidadea.*

Gauza tristea da benetan ainbeste millaka ta millaka tartean "beste edozein" bat izatea, beste edozein bat legez norberaren burua agertzea. Jaungoikoak danok egin gaitu diferentiak. Gizon bakoitzean gizon bakoitzarena ikusi gura dau. Nik daukaten "zeozertxua" ez dau beste inorenagan ikusi gura; ta, aldrebes, zuk daukazun "zeozertxua" ez dau niregan ikusi gura; bakoitzak bakoitzarena agertu bear dau beti. Diferentzi auxe dogu mundu au edertuten dabena sustraia.

Bakoitzok daukagu gure aparteko personalidadea; batzuek, aundia; beste batzuek, kaxkarra; baiña bakoitzak berea. Artista on baten, edo futbolista famatu baten, edo beste edozeinen personalidadea ikusten dogunean ez dagigun esan: "orren Personalidadea baneu!..." Esan dagigun ostera: "Orren Personalidadea, Jaungoikoak emondako Personalidadea da; nirea be Jaungoikoak emondakoa; bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa"...

*Idoyaga-tar Xabier*

## EDADE BAKOITZARI BEREA

1.—*Zure semea umea da?*

"Gure mutikoak, oraindiño amabi urte euki arren, edozein gizon baiño formala goa dozu; areri edozer esan leikio; ez dozu beste umeen lakoa; aurreratuta dabil..."

Ona amen guraso askoren pekatua. Baiña, ez da arrokeri-pekaturak bakarrik; berbeta orrek ba-dau beste pekatu bat, laugarren aginduaren kontra doian pekatua. Gurasoen obligaziñurik aundienetarikoa semeak asi ta EZITEA da; baiña ez ezi edozelan eta edozelako metoduakaz, kristiñau-gurasoari ondo dagokion metoduakaz baiño.

Umea, naiz tontua, naiz listua, naiz su-

fra, naiz aurreratuta egon, umea beti da ume. Jaungoikoak gauz guztieri emon deutse neurria. Edukaziñu-arasoak be bere neurria bear dau. Gauz guztiak ezin geinkez erabatera ta edade baten ez ikusi ta ez ikasi. Gizonaren edukaziñua etengabeko bierra da; seaska edo kunatik asi ta ilartekoa. Edade bakoitzak bere aparteko arloa dauka. Arlo oneek ezin daitekez edade batetik bestera aldatu. Umeak, ba, nai ta bizkórrena izan, ezin izango dau ikasi, ez IKUSI gaurko ume askok ikasten eta IKUSTEN dabeezan "gauzak"...

2.—*Zure semea gaztea da?*

Baiña, ba-dira guraso batzuk euren se-

meeri ezitasun edo edukaziñu estua emoten dautsenak be. Askotan, gurasoak kontzientzi estukoak dira. Semeak txikitatik, jaio ziranetik, euren eskuetan ibilli dabezan legez, aundiak dirapean be euren eskuetan, lotuta legez, ikusi gura dabez. Au eztago ondo: seme-alabak, bein edade batera eldu ezkeru, umeak baiño libertade geiago bear dabe. Onegaz ez dot esan gura bertanbera itxi bear dabezanik; baiña bai umetan erakusten eta esaten ez jakezan gauza batzuk erakutsi eta esan bear jakezala. Zer esan bear jakeen? Guraso bakoitzak daki bere semea edo alabea zelakoa dan eta zer esan bear jakon.

Edukaziñuak, bada, neurri apur bat bear dau. Aurtzaroan, aurtzaroko gauzak; umetan, umetako gauzak; gaztaroan, gaztaroko gauzak.

Ikasi dagigun eta gogoan artu S. Pablo Apostoluak dirauskuna: "Ume nintzanean, umeak legez pentsetan neban; gizon egitean, gizonari jagokon legez..."

*Txiki*



## EZKONGAI ETA SENAR-EMASTE GAZTEENTZAKO ESAN BATZUEK

Senargaiarentzat:

1. Gorde zure mosuak ezkontuta zure generako. Gaur emonkorra, biar eskuitziko izango zara.

2. Zure lazlanak izan daitezela egiazko maitasun-agiriak. Ez da gauza txikia egiz maitatzea. Ikasi ezkongai zaran bitartean bene-benetan maitatzen.

3. Zuen ezkon-bizitzearen asi-aldia eztau auztuko zure andreak bere bizitza guztian. Orregaitik, izan zaitez biguñia ta gozoa momentu orretan, aren lotsa ondo konprenituz.

4. Ez egin beti zeure borondatea bakarrik. Egin zeure andrearena be.

5. Alegindu zaitez zeuentzako bakarrik arratsaldeak topaten.

6. Bizi alkarren bakardade orduak eta artu batera zeun nekeak. Bakotzak bete leike noiz edo noiz bere buruaren esana, baiña au izan daitela noizean bein.

Andragaiarentzat:

1. Zure gizongaiak besarkatu gura izango zaitu, eta askotan ganera. Esan eiozu: ezkondu aurretik mosu gitxi, gero zeuk gura dozun beste (askotan senarrak egiten ez daben gauzea).

2. Ez arritu zuen ezkontzaren asikerean erreستا edo konpondu-eziñak agertzen bo dira, ezta zeuena bakarrik.

3. Bein ezkontuta gero ez pentsa zuen alkar-maitasuna ondo sendotuta dagoala. Ezkontzea betiko da eta ezkontza au ondo gordetzeko ardura aundia bear da.

4. Ez zaiezala aaztu zure semeak senarraz.

5. Zeure senarraren biarragaitik artu ardurea. Ez dozu izan bear "etxe" andrea bakarrik.

6. Amari ez itxi zure senarraren kontra berba egiten.

7. Jagon zure edertasuna. Etxean kanpoan baiño garbiago eta ederragoa izango zara. Asko poztuko dozu senarra.



# Aita Imanol-ek

## Irlandatik

# IRLANDAKO VERBETEA

Kaletik urrun bizi naiz, Irlanda barruan, bakartade zoragarri bat, pago ta aretx tartean. Kolegio eder bat dauke bertan Fraille Frantziskanoak. Toki guztiz egokia, baketan biziteko eta estudioak bear dan moduan egiteko.

Uda demporan, estudiantek euren etxeetan dagozan bitartean, gente asko etorten da ona, astebeteko estudio batzarrak egiteko. Lengo astean, naziño askotako delegaduak batu zirean bertan, agrikulturako problema internazionalak estudiatzeko. Eta aolan uda guztian.

Ni neu, igazko lez, inglesa ikasten etorri naiz. Egia esateko, aurrerakuntza aundirik ez dot egin oraindiño verbeta gatx onetan. Baiña alan ta guzti-bere, pozik nago Irlandan, bide batez gauza jakingarri asko ikasi ditut-eta.

LEN

Irlandako Oestaldean bizi direanak, *gaelikoz* verba egiten dabe. Auxe da euren verbeta naturala: gaelikoa. Verbeta zarra, verbeta apartekoa. Len, Irlanda osoan verba egiten zan gaelikoz. Orain berriz, Oestaldean bakarrik. Beste leku guztietan, galdu egin da. Galdu erri aundietan, galdu erri txikietan, galdu kalean, galdu base-rrian.

Galdumendi au, aintxiña asi zan. Amabigarren sekuluan, Inglesak etorri zirean Irlandara eta menperatu egin eben territorio osoa. Ondutik ona, zazpireun urtean, Inglesak izan dira oraintsurarte bertoko agintariak.

Unada luze onetan, azkenengo lareun urteetan batez-bere, alegin aundia egin eben Inglesak Irlandako verbetea ilteko eta beraren orde inglesa sartzeko. Irlandesak euren aldetik, egiñala egin eben askatasuna lortuteko; baiña gitxi arduratu zirean izkuntza nazionala jagoten eta zaintzen. "Gera Irlanda askatuta" esaten eben bitartean, inglesa gero ta geiago zabaltzen zan.

Emeretzigarren sekuluko abertzalerik ospetsuena, Daniel O'Connell izan zan. Lan izugarria egin eban askatasunaren alde. Irlanda guztian zear ibilli zan, abertzaletasuna zabaltzen eta erriaren espiritua biztuten. Bere itzaldiak entzutera, trombonadaka etorten zirean. Berak, ondo verba egiten eban gaelikoz; baiña alan ta guzti-bere, ingeles utsa erabilten eban bere verbaldietan.

ATZO

Daniel O'Connell, milla zortzireun ta berrogetazazpian (1847-an) il zan. Bere eriotzearen ostean, gauzak apurtxu bat aldatu

zirean gaelikoaren onerako. Sekuluaren amaikeran, abertzale banaka batzuk Movimentu bat sortu eben, izkuntza nazionala biztuteko ta zabaltzeko.

Sasoi atan, Inglesak zirean oraindiño guber-nuko agintariak. Orregaitik, eragozpen aundiak aurkitu zituan Movimentuak, bere asmoak aurrera eramateko; baiña ori goraberra, lan ederra egin eban. Gente asko, konvrentzidu egin zan izkuntza nazionalen importantziagaz; eta euren arteko susuenak, entusiasmoz beterik, gaelikoa ikasten asi zirean.

Baiña Irlandes geienak, lengo lez segidu eben, izkuntzearen alde ezer egin barik. Alde batetik, erreboluziñoa egiten eben Inglesen kontra; eta bestetik, geroago gela-go usetan eben euren arerioen izkuntzea. Kapitalean eta erri aundietan abertzale gartsuak gaelikoa ikasten eben bitartean, Oestaldeko baserriarrak abandonatu egiten eben euren verbeta zarra.

Azkenean, 1922-an, Inlandak askatasuna jaritxi eban.

## GAUR

Berrogei urte igaro dira, Irlanda libre egin zanetik ona. Dempora onetan, guber-nuak alegin aundiak dauz, izkuntza nazionala zainduteko ta zabaltzeko. Baiña alegin guztiok probetxu gitxikoak izan dira, naziñoeko puntu vitalak lengo lez geratu dira-ta. Bizitza ekonomiko-soziala, esate baterako, guztiz dago inglestuta.

Erri aundietan, alderdi industrialetan, dirua polito irabazten dan lekuetan, inglesak bakarrik erabilten da. Oestaldean —gaelikoz verba egiten dan alderdian— ez dago fabrikarik; erri guztiak, txiki txikiak dira; harra, pobrea da; baserriarrak dira ia danak; gazteak pozarren ikasten dabe inglesak, eta naziñoeko edo Inglaterrako erri industrialetara joaten dira. Orregaitik, Oestaldean bertan-bere, gaelikoz geroago gitxiago egiten da.

Gaur egunean, lau milloi ta berreun mi-

lla lagun bizi dira Irlandan, eta eun ta irurogei millak bakarrik verba egiten dabe gaelikoz. Eurotariko geienak Irlanda osoan sakabanatuta bizi dira, eta etxean bakarrik erabilten dabe izkuntza nazionala. Eguneroko zeregin guztietan gaelikoz verba egiten dabenak, berrogetamar milla-edo izango dira, eta Oestaldeko baserrietan bizi dira.

Naziñoeko eskola guztietan irakasten da gaelikoa. Batzutan asko, beste batzutan gitxiago. Baiña gurasorik geienak, gitxien irakasten dan eskoletara bialtzen ditue euren umeak, izkuntza nazionalak probetxu material gitxi daukolako.

Periodikoetan, radio - zine - telebisiñoan, Universidadean, Parlamentuan bertan, esatea lez, inglesa bakarrik erabilten da. Guber-nuko zuzendari askok, jakin-bere ez dake gaelikoz verba egiter.

Bape direan gizonak, aberatsak, karreradunak —geienak beintzat— ingles bakarrik verba egiten dabe. Eta erriko genteak, euren exemplua jarraitute dau.

Zegaitik ori? Gaelikoa bera gatxa dalako? Ez orixe. Ume askok, polito ikasten dabe verba egiten eskolan, gero aztuarren. Liburu-tako verbetea, erreza da. Ez dago dialekturik. Alderdi guztietan, bardin bardin verba egiten da. Idazleak, eskritoreak, erriaren verbetea erabilten dabe beti, purismo barik, erbesteko verbak usetako bildur barik. Ta alan ta guzti-bere, gaelikoa atze atzeka doa.

Zegaitik ori? Naziñoeko bizitza ekonomiko-soziala larregi inglestuta dagoalako. Auxe da errazoia. Auxe da motivu printzipala.

Irlandak bide bat bakarrik dauko izkuntza nazionala salvetako: gaelikotu bizitza ekonomiko-soziala; eta orretarako, sakrifikatu norberaren libertadea eta naitanaiez ontzat artu governu barri baten esku gorrak. Bestela, gaelikoa betiko ilko da.

Baiña Irlandak asko sufridu dau Inglesen azpian bere historia guztian; eta seguru seguru, ez dau inoiz artuko bide salvagarri ori, latzegia da-ta.

# Liburu batek ekarri eustan zoriona

Unibersidadea itxi ostean, industria-etxe aundi batean aurkitu neban neure bizibidea, eta bost urte geroago, Konpañiak Asiko musturreraño bialdu ninduan.

Ipar-Amerikatik urten baiño aste bete lenago, ordurarte ezagutu ez neban emakume adoragarrienagaz ezkondu nintzan. Ezta-eguna izan zan jairik alaiena, baiña ezkonberri-pozak laster amaïtu ziran. Biok geratu giñan asperturik, alkarregaz gogaituta; baiña andrea batez bere.

Hawaii ugartetara eldu giñanean, neure maztea guztiz lurjota egoan. Ipar-Amerikara, etxera biurtuko zan, lagun eta aidekoen aurrean agertzeko lotsarik izan ezpaleu: bere biziko gertakizunik unkigarrirenak pot-egin ebala autortutzeko arpegia izan baleu.

Urte bi zoritzarrekoak igaro genduzan Sortaldean. Batzuetan neure burua ilteko gogoak emoten eustan: ain zorigaiztoko aurkitzen nintzan!

Orreik, olan, gauza guztiak aldatu ebazan liburu bat topau neban. Beti izan dot liburuzaletasuna. Gau batez, norteamerikar lagun batzuen etxean nengoalarik, liburutegi beteari begira, ustekabean ikusi neban ezkontzaren ganean idatziriko bat. Titulua irakurri neutsanean, uskeri bat izango zala pentsau neban. Edegita orriak pasatzen asi nintzan. Laster igarri neutsan ezkontzearen ar-eme kontuak (sexu-ara-zoak) ekarzala oso-osorik.

Argi azaltzen ebazan jakitekoak eta, aldi berean, bape loitasun barik.

Liburu ori irakurtzea iñork eskatu ba-

leust, burla, iseka lez ariu izango neutsan. Ar-eme-goraberak dakarzan liburu bat, irakurri? Neu be bat idazteko gauze titzen nintzan-da...

Baiña neure ezkontzea ondaturik egogoratzean, liburua irakurtzen asi nintzan. Beraz, eskatu egin neutsan neure lagun leituden itxi eidala. Kosta jatan neure burua orrenbesteraño makurtutea, ez olantxe egin neban.

Eta egiaz esan daiket liburu ori irakurtzea izan dala neure biziko jazokerarik gusienetarikoa. Neure emazteak be irakurri eban. Liburu au izan da zoritzarre ezkontzea —senar-emazteak— zoritzarre biurtu dauzana.

John Watson sikologo ospetsuak au ebala irakurri neban bein: "Bizitzako mundurik erabilliena, ar-eme kontua dala izan dago. Giza-emakumeen artean kallerik egiten dienak egiten dituana be bera dala ote dabe".

Watson jaunak diñoana egia bada neu be beragaz nago, berak esana gogorrotz baieztua izan arren, guztiz ezpaleu be, zuzen esanik dagota—, ori egia dala zelan ixten deutse ezkontzen gizartearen ar-azoen ganean ia ezer eztaikien irakurteri, ezkontzearen zoriona erabat ondartzeko dala?

(DALE CARNEGIE, gizarte-maisu dazle ospetsuaren liburu batetik euskeratik dot).

Joan Azurmendi

# RUSIAN BIZI DA ORAINDIÑO FEDEA

Berrogei urtetan komunismuaren men-  
egonda, erlijiñoa ondatzeko alegin  
ziak burubidez eta indarrez egin ostean,  
siako aldizkariak ez dabe lotsarik izan,  
ristinau-fedea bizkortzen doala autortze-

Lenin "igarleak" zabaldu eban sasi-eri-  
ak (mitoak) —erlijiñoa nai ta nai- ez gal-  
dala gizartean— eztau egi-antzik.  
xismuaren maixuak utsegin dabe. Ogei  
ostean Russian "Jaungoikoa il da" esan  
zango ebela agindu euskuen, baiña, egia,  
este bat gertatu da, eta guztiz besterakoa.

Partiduaren aldizkariak autortzen dabe  
raindiño errusitar askok sinisten dabezela  
buru Santuetako irakatsiak: Jaungoikoa  
guztien egille ta jabe bakarra, gizo-  
aren arima illezkorra...

Eleizetara ta abade-etxeetara asko joaten  
dara. Bateok eta eleiz-ekkontzak gero ta  
dagoz. Biargille askok bateatu-araz-  
dabez euren seme-alabatxoak. Erliji-  
aren kontrako berbaldirik egin gura ez  
daben jakintsuak be ba-dagoz, ta "jakintza  
fedea" bien arteko dilema (bai ala ez)  
dabe.

Komunistak eurak be "ikonoak" (Ama  
irijinare irudiak) daukez euren etxeetan  
ta eleiz-jaiak ospatzen ixten deutsee eu-  
familiari.

Ba-dagoz sinismen sutsuko gizonak, eu-  
fedea zintzo gordetzearren edozein kri-  
ta ta eraso-aldi eroaten dabenak.

Alderdi guztietan agertzen da Jaungoiko-  
etasuna. Fedea berbizten asi da. Alan  
ortu dau Maitine irakasleak Moskun.  
dauan itzaldi batean. Eztira jazokera

bakan batzuk, antxiñako Zar edo erregeen  
aldezlari egoskor batzuk bakarrik eztira.  
Edade ta sasoi guztietakoen artean aurki  
diteke sinismen-biztea, ta batez be sifiste-  
bako ezikerea artu daben gazte artean.

Monje anglikano bateri inotson gazte ba-  
tek: "Gure gurasoak sinismen-bakoak i an  
dira, baiña fedea berbizten asi da".

Estaduaeren erlijiño-galerazoteak ezin dau  
giza-gogorik ase. Izan bere, erlijiñoa "ka-  
pitalistak asmatu-rikkoa" dala onartu daiteke  
beste barik?

Jazokera onek, komunismua erlijiñoaren  
kontrako kaltebide gogorragoak artzera  
beartu dau. Indarrez eta aurrez eraso bea-  
rrean, erlijiñoa errezago ta ariñago galdu  
daitean, askatasun-antzean itxi dau. Odol-  
ixurtzeak fededun barriak eta kementsua-  
goak sortzen baiditu...

## ISRAELGO PERIODIKU BATEK JOAN XXIII GORATZEN DAU

"Joan XXIII-garrena, erlijiñoen batasun-  
naren alde ta judu-arerioen (antisemitis-  
moaren) kontra ainbeste egiten ari dan Aita  
Santua, bide onetan aurrerapen barri bat  
emotera doa", diño Israelgo Gobernuaren  
"Davar" egunkariak.

Ta beerago diño: "Aita Santua, gizaldiak  
zear izugarritzko asarreak eta juduen aur-  
kako areriokeri itzelak sortu dabezen ber-  
bakera guztiak Liturgiatik baztertzer a doa.  
Guk eskerrak emoten deutsaguz eta Aita  
Santuak zabaltzen deuskun bide onetatik.  
Erlijiñoak alkar obeto artzera elduko dira-  
la uste dogu".

# GOSEA DALA-TA...

"Guztion onerakoak" gure egunetan indar aundia artu dau. Batasun-bidean ainbat kostata doian mundu zatitu onetan, alkartasunezko betebearrak naziño baten bakarrik ez leuke geratu bear.

Ez ori bakarrik: auzotasunez, istoriaz edo kultura bidez urreratuten diran naziñoetan mugak ipintea be gitxi izango litzake. Atzoko naziñoari gaur irabazi egin deutsagu. Gorago goaz; geiago gura dogu. Gaur ezta bazterrik ezagututen.

Orregaitik ugaritasunez asetuta dagozan naziñoak gosearen aurrean justiziazko erantzukizun galanta dauke. Asko dira norberekoikerizko pekatuak ondatzeko arriskuan dagozanak. Lur onetako aberastasanak sakabanaturik ipiñi deuskuzan Jaungoikoak ez ditu lagunurkoaren esku-bidetik askatu. Ainbat ariñen gosea zapaldu teko obligaziñoa dauke.

Jaungoikoari, gizatasun guztiaren Aitari lez begiratu bear deutsagu. Eta guk guztiok, beraren semeak legez, famili bat egiñaz bizi. Guztiok beragandik gatoz; guztiok aren erreinua zabaldu daitean artega gabiz; guztiok goaz azkenean beragana. Au olan izanik, zelan orrenbeste goseti?

"Karidadeak aginduko baleusku, mundua zeru biurtuko litzake" (Pio XII). Milia moduz baztertu geinke gosea: alkar-laguntzagaz, baserri-irakatsiak zabalduz, teatruak aldatuz, fabrikeen emariak igonik eabar.

Ganera gosea kendutea ez ete jako konbenidu naziñoen norberetasunari berari? Gosea da bakearen areriorik aundiena. Berak garoaz gerra guztietara. Asko galdu bearrik eztauko tripea utsirik daroanak; orregaitik gerrarako prest dago. Elstadu barriak gosea indarrez kenduteko sentitzen daberen tentaziñoa ikaragarrizkoa da. Baudug eta beste leku askotan naiko diadar egin dabe. Gogoan daroe, aurrez-aurre beste naziñoekaz egiterik ezin izango dabela, txirotasuna zapaldu ten ezpadabe.

Kristiñaua, munduko gosearen problemeari arpegia emon bear deutsagu. Geure itxaropena zeruan jarri arren, ez deutsagu lurrari sorbaldarik emon bear. Ainbeste anaien gose-diadar negartsuari azkena ipiñi bear deutsagu. "Emon eiguzu, Jauna eguneroko ogia!"

ARANA

## BUROKO-MIÑAK KENTZEKO

### IZKIRIMIRIAK

Senar-emaztien artean

- Peru, etxe onetan ezin lei bizi. Ormak meiak diranez, dan-dana entzuten deuskue bestaldekoek.
- Lodiagotu egingo doguz, Praiska.
- Ori be esan! Ta orduan zelan jakingo dogu ba bestaldean gertatzen dana?

Taberna batean

- Entzun, kamareru: sopatan euli bat ekarri deustazu.
- Ez ikaratu. Zenbat jango deutsu ba euli batek?

Peru Anton ta karterua

Peru Anton-ek karta bat daroatso. Karteruak pisu askoko karte dala ikusita, badiñotso:

- Karta onek pisu larregi dauko. Beste sellu bat ipiñi bearko deustazu.
- Beste sellu bat? Orduan pisu geiago eukiko dau.

Maixuak umeari

- Zenbat azur daukozuz gorputzean?
- Berreun ta zortzi.
- Ez neutsun esan ba atzo 207 zirala?

—Bai, baña ollaskoa jakeran, azur bat irutsi dot.

Alkondarak erosten

Andre bat sartu da dendan. Ango alkondara guztiak ikusmiratu ditu, ta badiñotso saltzailleari:

- Geiagorik eztaukazu?
- Bai, andre: auxe, jantzita daukodañe.

Bei bi berbetan

- Non dozu ba semea? Ez dot ikusten epaldion.
- Leku onean daukot, ederra alakoa!
- Non egiten dau ba biar?
- Bilbo-ko zezen-plazan.

Ezetz igerri!

- Ezetz igerri zer dan onena buruko-miñak kentzeko!
- Aspirina artzea.
- Ez.
- Loaldi eder bat egitea.
- Ezta.
- Diru askoren jabe izatea.
- Kia!
- Zer da ba orduan?
- GERNIKA-KO ASTO-KARRERAK IKUS TEA!

Felix Bilbao